

# Egoera ekonomikoa eta Merkatuak ASTEKO LABURPENA

2017ko abenduaren 4tik 8rako astea

---

## ➤ **INGURU MAKROA:**


- ❖ ASTEKO DATUEN PODIUMA
- ❖ KASU DATORREN ASTEAN GAI HAUEI...

## ➤ **ASTE HONETAN MERKATUETAN**

## ➤ **GURE IKUSPEGIA**

## ASTEKO DATUEN PODIUMA

### EUROPA: BPGd



### Datuaren analisia


Euroguneko hirugarren hiruhilekoko BPGd-aren azken datuak jardura ekonomikoak bizi duen egoera gozoa baieztatu zuen, % 0,6ko hiruhileko hazkundearekin. Datu hori aintzat hartuta, urte arteko hazkundera % 2,5ekoa izan zen. Azken berrikuspenean, gainera, behera egin zuen kontsumoaren ekarpenak eta gorantz inbertsioarenak, enpresa-aukera onekin bat datorren sendotasunaren adierazgarri. Partida guztiek ekarpen positiboak izan zituzten.

### Adierazlearen azalpena

Eurostatek argitaratzen du Barne produktu gordina (BPGd). Herralde baten ekoizpena eta hazkunde ekonomiko neurtzeko erabiltzen den adierazle ekonomiko bat da. Eurogunek ekoizten dituen azken zerbitzu edo ondasunen batuketa eginez lortzen da, eta denbora-tarte jakin batean erregistratzen da. Zerbitzu edo ondasun horiek lurralde nazionalen ekoiztakoak izan behar dute, hala enpresa nazionalen nola atzerrikoen eskutik.

## ASTEKO DATUEN PODIUMA

### AEB: ENPLEGUAREN TXOSTENA



### Datuaren analisia


Ameriketako enpleguaren datua positiboa izan zen azaroan, 228.000 enplegu sortu baitziren, espero ziren 195.000 postuen gainetik. Lanpostuen sorrera orokorra izan zen sektore guztietan. Halaber, lan egindako ordu-kopuruak hamarren bat egin zuen gora; astean 34,5 ordu. Parte-hartze tasa bere horretan mantendu zen, % 62,7an, langabezia-tasarekin batera (% 4,1ean). Ingurune horretan, soldata-tentsioak ez ziren handiak izan, urte arteko % 2,5eko soldata-hazkundearekin.

### Adierazlearen azalpena

Enplegu-txostena hilerro argitaratzen du Estatu Batuetako Lan Sailak. Estatu Batuetako lan-merkatuaren egoerari buruzko txosten osatu bat da, eta hainbat datu aurki daitezke bertan; horien artean nabarmenenak: enpleguaren sorrera (nekazaritza-sektorea kanpo utzita), langabezia-tasa eta soldaten bilakaera. Txosten honi esker, Estatu Batuetako ekonomiaren bilakaeraren gaineko pronostiko bat egin daiteke. Lan-merkatua hazten ari bada, herritarren errenta erabilgarria handitu egiten da. Beraz, kontsumitzailearen gastua igo daiteke, BPGd-aren igoera bat eragingo lukeena, eta, ondorioz, herrialdearen ekonomiaren hobekuntza.

## ASTEKO DATUEN PODIUMA

### JAPONIA: BPGd



### Datuaren analisia

Hirugarren hiruilekoko Japoniako BPGd-aren azken datua gorantz berrikusi zen: % 0,3tik % 0,6ra, espero zena baino askoz gehiago. Bada, berrikuspen horrek % 2,5ean utzi zuen urte arteko hazkundera, aurreko % 1,4tik. Nahiz eta datu ona izan, kalitateak okerrera egin zuen, kontsumoaren ekarpena negatiboa izan zelako eta hazkundera kanpoko sektoretik eta inbentarioen pilatzetik etorri zelako.

### Adierazlearen azalpena

Barne produktu gordina (BPGd) herrialde baten ekoizpena eta hazkunde ekonomikoa neurtzeko erabiltzen den adierazle ekonomiko bat da. Herrialde batek edo ekonomia batek ekoizten dituen azken zerbitzu edo ondasunen batuketara eginez lortzen da, eta denbora-tarte jakin batean erregistratzen da. Zerbitzu edo ondasun horiek lurralde nazionalen ekoiztakoak izan behar dute, hala enpresa nazionalen nola atzerrikoen eskutik.

## KASU DATORREN ASTEAN GAI HAUEI...

Data	Eremua	Adierazlea	Aurreikus.
12/12	Japonia	Hileko ekoizpenaren prezioen indizea	% 0,2
12/12	Erresuma Batua	Urte arteko KPIa	% 3,0
12/12	Alemania	ZEW oraingo egoerari buruzko inkesta	88.7
12/12	Eurogunea	ZEW inkestaren aukerak	--
12/12	Alemania	ZEW inkestaren aukerak	18.0
12/13	Alemania	Urte arteko KPIa	% 1,8
12/13	Erresuma Batua	ILO langabezia-tasa 3 hilabete	% 4,2
12/13	Eurogunea	Urte arteko enplegua	--
12/13	Estatu Batuak	MBA Hipoteken eskaria	--
12/13	Estatu Batuak	Urte arteko KPIa	% 2,2
12/13	Estatu Batuak	FOMC tasen erabakia (sabaia)	% 1,50
12/13	Estatu Batuak	Tasen erabakia Erreserba Federala	% 1,25
12/14	Japonia	PMI Nikkei fab Japonia	--
12/14	Txina	Urte arteko xehekako salmentak	% 10,3
12/14	Txina	Urte arteko industria-ekoizpena	% 6,1
12/14	Japonia	Urte arteko industria-ekoizpena	--
12/14	Frantzia	Urte arteko KPIa	% 1,2
12/14	Frantzia	Markit PMI Composite Frantzia	59.6
12/14	Espainia	Urte arteko KPIa	% 1,6
12/14	Alemania	Markit/BME Alemania Composite PMI	57.2
12/14	Eurogunea	Markit PMI Composite Eurogunea	57.2
12/14	Erresuma Batua	Banku-tasa Ingalaterrako Bankua	% 0,500
12/14	Estatu Batuak	Hasierako langabezia-eskaerak	239k
12/14	Estatu Batuak	YoY kontsumorako prezioen indizea	--
12/14	Estatu Batuak	Markit PMI Composite AEB	--
12/15	Eurogunea	Balantza komertziala SA	24.3b
12/15	Estatu Batuak	Manufakturen inkesta New York	18.3
12/15	Estatu Batuak	Hileko industria-ekoizpena	% 0,3

## BURTSAK:

Errenta aldakorreko merkatuen itxierak oso positiboak izan ziren Europan, eta mistoak AEBetan. Trumpen zerga-planaren onarpenarekin ekin genion asteari, merkatuetan oro har harrera positiboa izan zuena. Hala ere, sektore bakoitzaren portaera desberdina izan zen; bankuek gorantz egin zuten eta teknologiek behera. Europan, Brexitaren negoziazioak ere albiste izan ziren. Astearen hasieran bilera bat egin zen, baina ez zen akordio gehigarriak lortu. Ostiralean, baina, negoziazioak aurrera doazela jakin zen. Burtsek oro har harrera oso ona egin zioten albiste horri, banku eta turismo sektoreek batez ere. Azkenik, banku-araudian egindako azken erreformek banku sektorea indartu zuten, akordio hobeak lortu baitziren sektorearentzat. Horrela, banku handien portaera positiboaren laguntzarekin, Ibex-a izan zen astean hazkunderik handiena izan zuen indizea. Gorakorretan oro har, astea pixka bat positiboa izan zen, eta Japoniak aldaketarik gabe itxi zuen astea.

## ERRENTA FINKOIA:

Aste lasaia zor publikoaren merkatuetan. Europan, 10 urterako bonu alemaniarraren errentagarritasuna ez zen aldatu, % 0,31n mantendu baitzen egonkor. Aitzitik, mugaegun bereko bonu espainiarraren errentagarritasunak 2 op egin zituen behera, eta arrisku-prima 109 puntutan kokatu zen. AEBetan, ordea, 10 urterako bonua ez zen ia mugitu; 1 op egin zuen gora, % 2,38an kokatzeraino. Kreditu-merkatuari dagokionez, ez ziren aldaketa esanguratsurik gertatu.

## DIBISAK/LEHENGAIK:

Dibisei begira, dolarra euroaren aldean indartu zen, zerga-erreforma onartzeko negoziazioak aurrera zihoazela ezagutu zenean. Brexita gauzatzeko egindako akordioei esker, liberak ere balioa irabazi zuen euroaren aldean. Lehengaiak dagokienez, petrolioak aldaketarik gabe itxi zuen astea (63,67 \$/barrila), hegazkortasun handiko astearen ondoren, eta urreak balioa galdu zuen, 1.248 \$/ontza mailaraino.

INDIZEAK	PREZIOA	% Aldaketa Astean	% Ald. 2017
MSCI WORLD (Eur)	180,17	1,18	6,27
IBEX 35	10.321,10	2,34	10,36
DJ EURO STOXX 50	3.591,45	1,81	9,15
DJ STOXX 50	3.176,94	1,22	5,53
FTSE	7.393,96	1,28	3,52
S&P 500	2.651,50	0,35	18,43
Dow Jones	24.329,16	0,40	23,11
NASDAQ	6.840,08	-0,11	27,07
NIKKEI 225	22.811,08	-0,03	19,34
MSCI GORAKORRAK (Eur)	371,25	0,51	15,62
MEXBOL	47.572,86	0,65	4,23
BOVESPA	72.731,84	0,65	20,76
SHANGHAI	3.445,63	-0,83	6,03
Errusia Rts Mosku	1.119,54	-1,22	-2,85

Gobernuen tasak	Maila	Aldaketa Astean	Ald. 2017
ALEMANIA 2 URTE	-0,74	-0,03	0,03
ESPAINIA 2 URTE	-0,36	-0,02	-0,08
AEB 2 URTE	1,79	0,02	0,61
ALEMANIA 10 URTE	0,31	0,00	0,10
ESPAINIA 10 URTE	1,40	-0,02	0,02
AEB 10 URTE	2,38	0,01	-0,07
ALEMANIA 30 URTE	1,14	0,02	0,20
ESPAINIA 30 URTE	2,67	0,00	0,05
AEB 30 URTE	2,77	0,01	-0,30
<b>Kreditu-spreada (op)</b>			
MARKIT ITRX EUROPE 12/22	46,90	-1,07	-25,14
MARKIT ITRX EUR XOVER 12/22	231,77	1,34	-56,93

Dibisak	Maila	% Aldaketa Astean	% Ald. 2017
Dolarra / Euroa	1,18	-1,03	11,91
Yena / Euroa	133,59	0,09	8,61

Lehengaiak	Maila	% Aldaketa Astean	% Ald. 2017
Petrolioak (Brendt)	63,67	0,00	14,91
Urrea	1.248,50	-2,50	8,35

Kutxabank Gestión SGIIC SAUk prestatu du agiri hau, eta horretarako, fidagarriak diren informazio-iturriak erabili ditu. Hala ere, ezin du ziurtatu bertan jasotako informazioa eta iritziak erabat zehatzak, zuzenak eta osoak direnik, eta ez du bere gain hartzen horren gaineko inolako erantzukizunik. Agiri honetan agertzen diren informazio eta iritziak edonoiz aldatu daitezke, aurretik horren berri eman beharrik gabe. Kutxabank Gestión SGIIC SAUk ez du agiri honen eta bere edukien erabilerak sortu ditzakeen kalteen gaineko erantzukizunik hartzen. Finantza-merkatuetan eragiketak egiteak arrisku handiak sortu ditzake, eta posizioa etengabe zaindu behar da. Txosten hau ez da eskaintza bat ez eta finantza-aktiboak erosi edo saltzeko eskaera bat ere. Agiri hau zu informatzeko besterik ez da, eta hirugarrenek ezin dute berregin edo banatu. Era berean, ezin da, inolako aitzakiapean, osorik edo zati bat argitaratu.